



Nire diarioa

Saiatuta ere, ez ditut Aita eta Ama oso ondo ulertzen.

Badakit ez dudala behar adina ikasten, eta kaskar samarrak ditudala notak. Badakit desordenaturik dudala gela (anabasa da, amaren arabera): Baliteke borroka gehiegi egitea arrebarekin, eta Aitarekin ere behin eta berriro aritzea eztabaidan.

Baina, hala ere, ez naiz, lagunekin alderatuta, hain ezberdina. Beraiek ere ia gauza berberak kontatzen dizkidate. Denon bizitzak berdinak direla pentsa liteke. Gureak berdinak, beraienak ere berdinak.

Asteazken zehar, astelehena eta ostegunetan baino ez nintzen ondo egoten eta ondo sentitzen, futbol-entrenamenduetara joaten bainintzen orduan, eta ostiral eta larunbatetan, lagunekin irteten nintzelako.

Beldur naiz zer gertatuko ote den orain, ikasturtea amaitzen denean. Badakit inoizko notarik txarrenak izango ditudala. Saiatu naiz gehiago ikasten, baina, hala ere, gutxiago ikasi dut. Ezin izan dut ezta kontzentratu ere.

Azken bi hilabete hauek, benetan egun penagarriak bizi izan ditut, entrenamendurik gabe eta asteburuetan etxetik irten gabe. Lazgarriak, zinez. Zigoritu ninduzuenetik ez dut distraitzeko edota ondo pasatzeko paradarik izan.


Ikasteko egin ditudan ahaleginek eta zuekiko eztabaidek definituko lituzkete azken bi hilabeteok. Aldartearen ere aldatuta daukat. Triste nago eta edozergatik haserretzen naiz. Liburuen aurrean esertzen naizenean, lagunekin ikusten dut neure burua, kalean. Ez naiz bost minutuz ere kontzentratuta egoteko gauza, eta horrela ez dago azterketak gaingitzerik.

Ez dakit nola ulertaraz diezazuekidan aisialdia kenduta, nahi zenutenaren aurkakoa baino ez duzuela lortu. Denbora hori gasolina da niretzat. Eta gasolarik izan eztean, ezin diezaioket aitzina daukadanari aurre egin.

Eta orain badakit zer gertatuko den. Ederra izango da uda niretzat. Etxean lotuta edukiko nauzue, lagunik, hondartzarik, ezertxo ere gabe. Eta badakit ez duela askotarako balio izango. Badakit uda honetan ez naizela, zuek nahi izanagatik ere, egunean jarriko.

Denok daukagu geuretzat den denboraz gozatzeko eskubidea. Denok behar dugu geuretzako denbora.

Neuretzako denbora behar dut!!!!!!





Ernesto Maruri

Aisialdia eta hazkundera

Amaren sabelean bizi zinenean, elkarrekin ematen zenituzten aisialdi guztiak. Behar zenuen guztia ematen zizun berak: eskatu beharrik ere ez zeneukan edozer lortzeko tenorean.

Jaio zinenean, orde, lurreko paradisuetik erori zinen. Amak ez zizun bere denbora guztia ematen (aitak ere ez), eta batzuetan zer nahi zenuen intuitzen ez zuenez, eskatzera behartuta egoten zinen: protesta eginez, negarrez... Lotan zeundenean izan eziz, baina, beti egoten zinen norbaitekin.

Funtsezkoa izan zen zuretzat gurasoek, beren bizitzetatik hartuta, eskaini zizuten denbora... bai eta denbora hori eman ez zizuteneko uneak. Horrela, lehendabiziko bi urteak igarotzen ziren neurrian, zain bazeuden ere, zeure denborarekin bakarrik uzten zintuzten tarteak: batzuetan lo gera zintezten, beste batzuetan eskuez jotzean, zarata egiten zuten koloretako bolekin jostatu edota panpinekin diberti zintezten. Mesede handia egin zizuten, bizitzan oinarrizkoa baita denbora bakarrik pasatzen jakitea.

Urte gutxi batzuk pasatuta, gurasoek jarraitu egiten zuten zurekin jolasten.

Hasieran aitari gehiago kostatzen zitzaion, baina barnean zeraman umea aurkitu eta azkenean, momentu ederrak pasatu zituen zurekin behe gainean narrantz ibilita, edota txingoteak marraztuz eta ipuinak kontatuz... Erabateko gozamina zen zuretzat, orain eta hemen, besterik ez zegoen, eta hori irakatsi zenien gurasoei ere: lehenago gertatutakoak edo etortzeko zegoenak kezkatu gabe, tokian eta momentuan egoteko gaitasuna.

Batzuetan, gurasoetako bat, edo biak, nekatuta egoten ziren edo beste zerbait egin nahi izaten zuten. Horrelakoetan, nekea eta nahiak alde batera lagata, jaramon egiten zizuten, Beste batzuetan, orde, ai!, ezetz esaten zizuten, beste momenturen batean egongo zirela zurekin. Horrela, izorratuta egon eta beraiekin haserretu arren, ezetz esaten irakatsi zizuten, nork bere nahien arabera aritzeko eskubidea duela erakutsi zizuten eta zu, garrantzitsuena izanik ere, beraientzat den-dena ez zinela ikusi ahal izan zenuen. Horrela joan zinen haziaz, gurasoak zuretzat den-dena ez direla ere onartuaz.

Aisialdiak mugak dituela ere irakatsi zizuten gurasoek: Nahikoa da, orain

etxera edo lotara joan behar da, edo egitekoak daude egiteko... Sutan jarri eta kexaka arituta ere, betebeharreirantz zuten ikasi zenuen.

Eta gero eta denbora gehiago behar zeuen neba-arrebekin edo adiskideekin pasatzeko, eta horrek beraientzako denbora libre gehiago ematen zien gurasoei. Gurasoak lagungarri izan zentuzten beste ume batzuekiko harremanetarako. Eskolara ez ezik, zabuetara ere eramaten zintuzten, eta beste ume batzuekin jolas zintezten animatzen. Urtebetetze-festak antolatzen zizkizuten, beste familia batzuekin txango joaten zintuzten...

Aiton-amonengan aurkitu zenuen laguntza ere aberasgarri suertatu zitzaizun...

Hasieran aitari gehiago kostatzen zitzaion, baina barnean zeraman umea aurkitu...

Eskolatik kanpoko ekintzen sasoia heldu zen ondoren: ingeles akademia batera sartu zintuzten, eta aisialdia murrizturik geratu zen ondorioz. Hala ere, ondo etorri zitzaizun. Beste ekintzei dagokienean, zuri utzi zizuten hautatzen, aisialdiakoak zirelako. Asko zeuden aukeratzeko: pintura, esku-lanak, judoa, futbola, tenisa, dantza, igeriketa, musika... Arazoak izan zenituzten, ordea, hasi eta hilabete eta piku igaro ondoren kokoteraino zeundelako musikaz, baina gurasoek derrigor eramaten zintuzten gero. Ez zuten, bada, gogokoa zela esan!! Amari ikaragarritzko ilusioa egiten zion jarraitzeak, eta gogorra izango zen beretzat bere frustrazioari aurre egitea baldin eta zeuk uzten bazenuen. Azkenean, amore eman eta onartu zuen judora pasa zintezten, horixe baitzen zeuk nahi zenuena, nahiz eta bere gogokoa izan ez. Zure lehentasunetan ikertzen ari ziren. Izatez, urtebete igaro ondoren, judoa alde batera laga eta pintura-klaseei ekin zenien. Zenbait urte, eta gustura, gainera, eman zenituen jarduera berri hartan.

Irudimenaz eta fantasiaz blai zeuden munduak ere eskaini zizkizuten gurasoek: lpuinak kontatzen zizkizuten, marrazki bizidunetako pelikulak jartzen, zinemara edo ipuin-kontalariengana eramaten zintuzten, txotxongiloetara, zirkura, jaietan kaleetan zehar eskaintzen zituzten ikuskizunetara... lpuinak, eta haur-liburuak oparitzen zizkizuten irakur zenitzan...

Xakean eta dametan irakatsi zizuten, okan eta partxisean, monopolyan eta tutean... Eta lagunekin praktikan jartzen zenuen ipuin-liburua jaso zenuen beraien eskutik.

Nerabezaroan murgildu zinenean, klarion batez markatu zenuen adiskideekin eman nahi zenuen aisialdiaren norainoko zabala. Gurasoentzat, ordea, tarte ñimiñoa baino ez zenuen utzi. Horrek, alde batetik, askeago utzi zituen, baina bestetik, mingarri gertatu zitzaie eta zure falta nabaritu zuten. Beldur ziren porroekin ketan amai zenezan eta alkoholetan ito zintezten. Areagotu egin ziren eztabaidak eta isiluneak, eta egarriak zeuden gurasoak, beti zutaz galdezka eta artean eskaintzen zenizkien

une atseginez gozatzeko irrikan.

Gainera, irteteko eta parrandan ibiltzeko gogo biziak, aurkitzeko zeneukan guztiak itsuturik erakarrita, ikasteari eskaintzen zenion denbora eta interesa murriztu zituen. Gurasoen aurkako borroka ekarri zuen horrek. Indar handiz bultzatzen zintuen etenik gabe aisialdiaz gozatu beharrak. Zeure buruari mugak jartzen lagundu zizuten; egitekoak egin ondoren, zeure burua indartsuago egongo zen. Batzuetan ondo irten zen; beste batzuetan, ostera, ez hain ondo, baina aurrera egin zenuen.

Bikotea osatu eta gurasoa izateko ideia azaldu zitzaizun. Horrek hankaz gora jarriko zuen zeurea eta zeure biko-

Aita edo ama bat muturrean jartzen denean hasten dira arazoak: beti eskura dagoenean edo, alderantziz, umeentzat afektiboki ez dagoenean.

tekidearena zen denbora. Ezinbestean berekoi da guraso izatea erabakitzen duena: guraso izan nahi dugulako gara guraso, zerbait falta dugularik, zati batean ume baten bidez bete nahi dugulako hutsune hori. Aldi berean, uko egiten zaio, inolako interesik gabe, hainbat gauzari: bikotekidearekiko denborari, norberaren gauzetarako denborari...

Aita edo ama bat muturrean jartzen denean hasten dira arazoak: beti eskura dagoenean edo, alderantziz, umeentzat afektiboki ez dagoenean. Zenbat ama –eta horiexek izaten dira nondik edo handik gurasoen eskoletara joateko astia ateratzen dutenak aitak gehienetan, agertu ere egiten ez direlarik- ageri ohi diren kexu, seme-alabak direla kausa, beraiantzako denborarik ez dutela esanez! Zailtasunak izaten dira seme-alabei mugak ezartzeko (se-

me-alabei funtsezko den guztian arreta emanda), ezetz esateko, umeak nahi duen guztietan eten ditzan ez uzteko, literalki umeek xurgatuak ez izateko, apurka_apurkako bereizketa ez egiteko. Umeei gehiegi eskaintzen dielako estutzen den ama bati (edo aita bati) usteak ustel aterako zaizkio: ezin izango da seme-alabekin gustura egon, gehiegitan sentituko da haserre eta artega... Gainera, jarrera horrekin ez du umeek, adinaren arabera, beharrezkoa duten gero eta autonomia handiagoa eskura dezaten.

Gurasoek izugarritzko eskuzabaltasunaz jokatzten dute beren denbora eskainiz umea jaiotzen denean. Ondoren, pixkanaka-pixkanaka, berriro konkistatu behar dute denbora hori beraiantzat, beren eta seme-alaben onerako.

Hortaz, artikulua irakurri baldin baduzu, egin ezazu gogoko duzun zerbait, umearekin zein umea gabe.



HEZKIDETZA

A Hezkuntza-eremu ezberdinetan (familia, aisialdia, eskola, komunikabideak...) gauzatzen den gizakien sozializazio-prozesuan zehar, neskatoei eta mutikoei rol eta balio ezberdinak esleitu ohi zaizkie, eta sexuaren arabera indartuko da gaitasun ezberdinen garapena. Pertsonen zati bateko garapena eragin du egoera horrek gaurdaino; izan ere, emakumezkoek eremu pribatuarikiko lotura zeukatzen gaitasunak, balioak eta jarrerak (sentikortasuna, samurtasuna, dedikazioa, abnegazioa, entrega...) bereganatzen zituzten bitartean, gizonezkoek eremu publikoarekin lotuta dauden gaitasunak, balioak eta jarrerak (ekimena, adimena, beren buruarekiko segurtasuna, lehiakortasuna, segurtasuna...) hartzen baitzituzten beretzat. Gizon eta emakumei balio ezberdinak emanez eraiki izan den gizartearen antolaketa-

ereduak, gizarte horren banaketa eta hierarkizazioa izan ditu oinarri, eremu publikoari, gaur egun ere, etxeari baino balio handiagoa eman ohi zaio-eta.

Horrek guztiak garrantzi handiko defizitak eta hutsuneak eragin ditu pertsonengan, eta ezaugarri biologikoa besterik ez zena, gizabanako guztien etorkizuna baldintzatuko duen gizarte-erakuntza izatera heldu da. Hezkuntza-sistemak rolen banaketan eduki duen egitekoa funtsezkoa izan da, neskatoentzat eta mutikoentzat ezberdina zen eskola bereziaren bidez. Ereduen arteko bereizte hori, itxura batean, gainditu egin da eskola mistoari esker.

Pedagogiaren filosofia berria, Hezkidetza alegia, indartu beharra dago eta, generoen analisi honetatik abiatuta, neskato eta mutiko guztien garapen integral zinezkoa bermatuko duten jarrerak, balioak eta gaitasunak sustatu.

Horrela, Gizarte Zerbitzuen Arlotik, eta Getxoko Emakumeentzat Aukerei dago kienean Berdintasuna egon dadin diseinatu den Udal Egitasmoaren ildoan lan eginik, Getxoko hezkuntza-inguruan sexuen arteko berdintasunaren aldeko Hezkuntzan jardutea dugu helburu, hezkuntza-prozesuetan aukera gutxiago izan dituzten emakumezko ikasleei laguntza emanez eta, Gurasoen Eskolen bitartez, familietatik abiaturik berdintasunaren aldeko Hezkuntza sustatuz.



Irakurriz ikastea...

Diego Maciá Antón

Un adolescente en mi vida



Seme-alabenganako ezagutza, errespetua eta eredu izatea eskatzen duen egiteko konplexua da, inolako zalantzarik gabe, heztea, hitza bere zentzurik zabalenean hartuta. Nerabezaroa garai latza izaten da bizitzan eta asko eta asko dira seme-alabekiko harremanetan aldaketa garrantzitsua nabaritzen duten gurasoak. Arazoak ere, ezberdin eta berriak izaten dira, ordura artekoekin erkatuz gero. Horrelakoetan, heziketa-zereginari aurre egiteko baliabiderik ez daukatelako sentsazioak harrapatzen

ditu gurasoak. Sentsazio horrek, askotan, errealitateari erantzuten dio. Beste batzuetan, ordez, ez da horrenbesterako izango.

Adibide praktikoen bidez, etapa zail honetan, seme-alabak zoriontsu, aske eta arduratsu izatea erdiesteko, gurasoei hainbat egoerari aurre egiten eta heziketan arrakasta lortzen lagunduko dien metodologia sistematikoa erakutsirik, estrategia orokorra eskaintzea du xede lan honek.

Maciá, Diego «Un adolescente en mi vida». Ed. Piramide (Guia para padres). Madrid. 9,90€